

TITULUEN EBALUAZIO BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUAREN ARAUDIA

1.- Objektua eta izendapena.

Tituluak ebaluatzeko Batzordeak Egiaztatze-Baimentze, Jarraipen, Titulu ofizialen Egiaztapen Berritzea eta tituluaren ebaluazioarekin harremana duten beste prozesuekiko zerikusia duten gai guztien Unibasqeko ebaluazio organuak dira.

2.- Konposaketa.

Tituluak Ebaluatzeko Batzordeak ezaguera eremueen arabera sailkatzen dira (Arteak eta Giza-Zientziak, Zientziak, Arkitektura eta Ingeniaritza, Osasun-Zientziak eta Gizarte eta Lege-Zientziak).

Batzorde bakoitza lehendakari batek, idazkari batek, zehaztu gabeko zenbait batzordekide akademikoek, batzordekide ikasle batek eta, behar denean, batzordekide profesional batek osatzen dute, ebaluazio prozesu bakoitzaren berezitasunen arabera.

Ebaluatzaileen profil desberdinak hautatzeko erabiltzen diren irizpideak Aholku Batzordeak onartutako Unibasq-eko ebaluatzaileak hautatzeko Protokoloaren Eranskin I-ean daude.

Tituluaren Ebaluazio Batzordeak eratzeko orduan gizon eta emakumeen presentzia orekatua sustatuko da, sexu bakoitzaren 40%-ko gutxienezko presentzia bermatuz.

3.- Tituluaren Ebaluazio Batzordeen kideen izendapena.

Aholkulari Batzordeak proposaturik, Agentziaren Zuzendariak batzordekide akademikoak eta profesionalak izendatuko ditu. Halaber, Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Aholkulari Kontseiluak proposaturik, Agentziaren Zuzendariak batzordekide ikasleak izendatuko ditu.

Agentziaren Zuzendaritzak Batzordeen kide kopurua zehaztuko du, deialdi bakoitzaren beharrezan arabera. Era berean, Zuzendaritzak batzorde bakoitzaren kideen artean batzarburua eta idazkaria izendatuko ditu.

Batzordeek pertsona adituen aholkularitza eskatu ahal izango dute, ebaluazio prozesuaren ezaugarrien arabera. Pertsona adituek banan-banan edo batzordeen bidez jardun ahal izango dute. Aipatutako adituak ebaluazio batzordeen kideak hautatzeko erabiltzen diren irizpide berdinak erabiliz hautatuko dira.

4.- Tituluaren Ebaluazio Batzordeen independentzia. Bateriaezintasunak.

Ebaluazio Batzordeek independentzia osoz jardungo dute eta Agentziaren gainontzeko organoek ezin izango dituzte haien ebaluazioen emaitzak aldatu.

Ebaluazio Batzordekideak bateraezintasunen arloko indarreko araudia eta Agentziaren Etika Kodearen menpe daude.

13/2012 Legearen, Ekainaren 28koa, Unibasq, Euskal Unibertsitate Sistemaren Agentziarena, 5. eta 7. artikuluen arabera organo zientifiko-teknikoetako kide izatea ebaluatzeko gai izan daitezkeen erakundeen kudeaketa kargu unipertsonala edukitzearekin bateraezina da, euskal unibertsitate sistemaren unibertsitateen hiru errektoreak izan ezik.

Gobernu Kontseiluaren kideek ezin dute Unibasq-en ebaluazio, egiaztapen edo ziurtapen jarduerarik egin.

5.- Ebaluazio batzordeen eginkizunak.

Batzordeen eginkizun orokorrak honako hauek dira:

- a) Ebaluazio prozedurak eta haietan parte hartzen dituzten kanpo aholkularien lana planifikatzea eta koordinatzea.
- b) Ebaluazio prozedurak hasi baino lehen ebaluazioan aplikatu beharreko irizpideak eta metodologia prestatzea, onartzea eta argitaratzea.
- c) Garatutako prozedurak jarraitzeko eta hobetzeko mekanismoak zehaztea.
- d) Agentziaren Etika Kodean ezarritako konfidantza eta giza-erantzukizun irizpideak jarraituz jokatzea.
- e) Hartutako erabakien independentzia eta inpartzialtasuna zaintzea.
- f) Ebaluazio prozeduren garapenean koherentzia bermatzea.
- g) Aholkularitza metodologikoa eta teknikoa ematea.
- h) Bere jarduera-eremuarekin zerikusia duten egoera-txostenak egitea.
- i) Agentziak egindako ebaluazioetan, kide anitzeko organuaren arrazoitutako azkenengo erabakiak hartzea.
- j) Agentziaren Zuzendariari haien jardueren garapenaren eta hartutako akordioen berri ematea.

- k) Ebaluazioa, egiaztapena eta ziurtapenari buruzko eginkizunak dauzkaten estatuko, autonomietako eta nazioarteko beste agentzia batzuekin garapen eta elkarlanerako loturak ezartzea.
- l) Agentziaren Zuzendariak edo indarrean dagoen araudiak espresuki agindutako beste edozein eginkizun.

Era berean, batzordeen eginkizun espezifikoak honako hauek dira:

- a) Unibasq-en eskumena diren titulu ofizialen lorpena helburu duten ikasketa planen kalitatearen ebaluazioa eta egiaztapena, hauek onarpena jaso dezaten.
- b) Indarreko araudian aurreikusitako tituluen ezarpenaren ondoren urteroko jarraipen txostenen ebaluazioa egitea.
- c) Berauen eta proposatutako aldaketen ebaluazioa egiaztapena berritzeko.
- d) Indarrean dagoen araudiaren ondorioz arau bidez agindutako beste edozein eginkizun.

Batzordearen Lehendakariari dagozkion eginkizunak:

- a) Organuaren ordezkariak eramatea.
 - b) Batzordearen lana koordinatzea.
 - c) Aurrerapen nahikoaz bileren deialdia adostea eta eguneko gaien zerrenda ezartzea, beste batzarkideek adierazitako eskaerak kontuan izanda.
 - d) Bileren buru izan, eztabaiden eboluzioa moderatu eta frogatutako arrazoi bat dela medio haiek etetea.
 - e) Bere botoarekin berdinketak erabakitzea, akordioak lortzeko.
 - f) Legeen konplimendua segurtatzea.
 - g) Batzordeen akordioen ziurtagiriak eta aktak sinatzea.
 - h) Batzordeen akordioen ziurtagiri eta egintzen oniritzia ematea.
 - i) Esleitutako txostenak prestatzea.
- a) Ebaluazio saioetan parte hartzea, eskaera guztien kide anitzeko ebaluazio erabakietan parte hartuz.
 - b) Batzordearen beste kide bateri espresuki esleitu ez zaion beste edozein eginkizun.

Batzordearen Idazkaritzari dagozkion eginkizunak:

- a) Bileretara joatea hitz eta botoarekin.
- b) Izandako bileran proposatutako aktak idatziz jartzea.
- c) Batzordearen akordioen aktak eta ziurtagiriak sinatzea.
- d) Onartutako akordioen, kontsulten eta xedapenen ziurtagiriak igortzea.
- e) Esleitutako txostenak prestatzea.
- f) Ebaluazio saioetan parte hartzea, eskaera guztien kide anitzeko ebaluazio erabakietan parte hartuz.
- g) Prozedura bakoitzaren bukaeran Batzordearen kideek proposatutako hobekuntza proposamenekin txosten bat egitea Agenziako Aholkulari Batzordera eramateko.
- h) Batzordearen Lehendakariak behar duen guztian laguntzea.

Batzordearen gainontzeko kideei dagozkien eginkizunak:

- a) Esleitutako txostenak egitea.
- b) Bileretara joatea hitz eta botoarekin.
- c) Ebaluazio saioetan parte hartzea, eskaera guztien kide anitzeko ebaluazio erabakietan parte hartuz.
- d) Bere kide izateari dagozkion beste eginkizunak.

6. - Ebaluazio Batzordeen kideen informazioa eta formakuntza.

Unibasq-ek ebaluatzaileen esku informazio eta formakuntza sistema eta elementuak jarriko ditu kalitatezko ebaluazio bat burutu dezaten.

7. Deialdiak eta bilerak

Ebaluazio Batzordeak bilkura arruntean batuko dira haien eskuduntzari dagozkien gaiak erabakitzeko. Aparteko bilkuran batu ahal izateko Lehendakariaren erabakia edo, gutxienez, kideen heren baten akordia beharrezkoa izango da.

Batzordeen baliodun eraketarako, bilerak ospatzeko, Lehendakariaren eta Idazkariaren, edo hauen ordezkoen, eta kideen kopuru erdia eta beste baten presentzia beharrezkoa izango da. Lehendakaria ez balitz egongo honen rola adin gehieneko kideak hartuko du. Idazkaria bertan ez balegoke bere eginkizunak adin gutxienerako kideak beteko lituzke.

8.- Funtzionamendua.

Ebaluazio Batzordeek prozedura osoaren planifikazioaren, kontrolaren eta analisiaren lanak burutuko dituzte eta adierazitako epai teknikoak kontuan izanda azkenengo txostenak igorriko dituzte. Ebaluazio Batzordeak osatzen dituzten pertsonak Batzordearen izenean eta irizpide indenterentziarekin lan egingo dute eta ez kide diren instituzioaren edo taldearen ordezkari gisa.

Ebaluazio komitearen jarduera kide anitzekoa da, eta erregelamendu honen 3.puntuan aurreikusten den bezala pertsona adituen aholkua eska dezakete.

Bere eginkizunen jardueran Agentziaren Etika kodean jasotakoaren eta ezarritako barne arautegiaren menpe egondo dira.

Behin espedienteen analisi eta ebaluzioa burutu eta gero, hauek txostenaren zirriborroa egiteko arduraduna den batzordearen kideari bidaliko zaizkio.

Zirriborroak bukatuta, Batzorde bakoitzeko Lehendakariak bilera ospatzeko eguna eta ordua ezarriko ditu, non Batzordearen kideek kide anitzeko organu gisa espedienteak ebaluatuko dituzten.

Bilera honen emaitza moduan, ebaluatutako eskaera bakoitzeko arrazoitutako txosten bakarra emango da. Batzordeen kide guztiek bileretara joateko betebeharra dute, nahiz eta ez izan espedienterik esleituta. Idazkariak bileran izandakoen izenak, eguneko gai-zerrenda, bileraren iraupena, eztabaidatutako gai nagusiak eta hartutako akordioen edukia jasoko duen akta egingo du. Batzordearen eztabaiden ondoren, kideren batek bileran hartutako erabakiekin desadostasuna agertzen badu, egoera hau aktan jaso beharko da. Betiere, Batzordeen erabakiak arrazoituak izan behar dira.

Ebaluazio Batzordeek baliabide elektronikoak erabiliz akordioak hartu ahal izango dituzte, 30/1992 Administrazioaren Jardunbidea eta Prozedura Administratibo Arruntari buruzko Legearen 26 eta 27.1 artikuluetako nahitaezko izapideak errespetatuz, Ekainaren 22ko 11/2007 Legearen lehenengo zedapen gehigarrian eta Otsailaren 21eko 21/2012 Administrazio Elektronikoko Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Ebaluazio, egiaztapen eta ziurtapen Ebaluazio Batzordeek txostena eman eta gero gauzatuko dira Agentziaren Zuzendariaren ebazpenen bidez.

Aldizka Unibasq-eko Aholkulari Batzordeak emaitzak balioztatu eta egokiak izan daitezkeen hobekuntzak proposatuko ditu.

9.- Akordioak eta Aktak.

Akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira. Gai-zerrendaren barruan ez dauden gai edo asuntu berrien inguruan baliodun akordioak hartu ahal izateko Ebaluazio Batzordearen kide guztiak bertan egon beharko dira eta gaiaren premia aho batez erabaki beharko da.

Ospatzen den bilera bakoitzeko Idazkariak akta egingo du bertan egon diren kideen izenak; bileraren gai-zerrenda; bilera ospatu den lekua; eguna, hilabetea eta urtea, eta hasi eta bukatu deneko ordua; eztabaidatutako gaien azalpen laburra, jasotako gorabeherak, erabakiak eta hartutako akordioak jasoz. Batzordearen eztabaiden ondoren, kideren batek bileran hartutako erabakiekin desadostasuna agertzen bada, egoera hau aktan jaso beharko da. Betiere, batzordeen erabakiak arrazoituak izan behar dira.

Batzordearen kideen oniritziaren ondoren, Lehendakariak eta Idazkariak aktak sinatu beharko dituzte.

10. - Agintaldiaren iraupena eta kargugabetzea.

Ebaluazio Batzordeen kideen agintaldiak 3 urteko iraupena izango du. Hau bukatu eta gero kargua uzten dutenetik beste hiru igaro arte ezin izango dira berriro hautatuak izan. Beren agintaldia amaituta, Ebaluazio Batzordeen kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute haiek ordezkaturiko dituzten kide berrien izendapena gertatu arte.

Ebaluazio Batzordeetako kideek bere kide izatea galduko dute honako arrazoiengatik:

- a) Agintaldiaren bukaera.
- b) Ukapena.
- c) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.
- d) Ondoren agertutako bateraezintasuna.
- e) Eginkizunen eta betebeharren ez betetze larria, errepikatutakoa eta nahitakoa.
- f) Ikaslea bada, ikasle izatearen galera.